

## Errien eskubideak, ezker-eskuindarrak eta euskaldunak

*Alderdi*, 291. zk., 1974-02.

Gure erriak memori gehiegi duen kexa izaten da sarri; irainak gogoratzen bait ditugu gehienetan, eta iraina ezin da gaurkoa eta biarkoa jasotzeko behar dugun oinarri izan.

Joanak joan, hara hemen, eta gaia *Frantziako gobernuak*, urtarrilaren 30an artu duen erabakiaz, *autonomia eskatzen duten lau erakunde debekatuen* gaia artuta, gaur-gaurko juzga-bide diren berri eta argipen batzuk. Dakigunez, hoietako bat Euskalerriko "Enbata" da. Hala, ikusi ditzagun lehen ofizialki agerian jarriak izan diren *eskuindar* eta *ezkertarren* asmo batzuk.

### 1. Eskuindarrak

a) Gobernua bera eskuindarra denez, "Enbata" dela-ta egin duenak zerbait salatzen du: aitzaki bezala artua izan den indarkerietan ibili ez den zerbait jo nahi izan dutela: gogoko ez zaion askatasun zati bat (askatasuna zatitzerik badago).

b) Eskuiko gobernu honetako gizona den Alexandre Sanguinetti-k esandako itzak adierazten dute zerbait: "errejionalista edo autonomista bezala agertzen diren hoiak, gaurko mundua ezagutzen ez duten 'imbéciles' batzuk besterik ez dira".

### 2. Ezkertarrak

a) Pyrénées-Atlantiques-eko Partidu Komunistaren agiriak diona hau da: "Enbatari" egin diotena demokraziaren aurkako okerra izan da; baina nola nahi ere hau probintzialismo zozo bat besterik ez danez, Partidu Komunistan Frantzian bilatzen duena Frantziako lurralde guzietako ogi-bide eta bizi-bideak piztea da, frantsez guziak frantsez bezala iraun dezaten.\*

b) Sozialisten izenean, S. Narbaits-ek, eta leku berean, bestela itz egin du: honentzat, mugaz hauzko eta honozko euskaldunak anaiak gera, eta anaitasuna hau ezin dute inoiz agintariek dekretoz autsi.

d) Parisko *L'Humanité-Dimanche*-rentzat, autonomisten nahiak parregarriak ("grotesque") dira.

Ez dugu uste ipar-aldeko eta ego-aldeko Euzkadin lanean ari diren Partidu Komunistak jokabide berdina erakusten dutenik; gaur behintzat; eta espero dugu aurrerakoan ere hala ez izatea.

Hori nahi genduke euskaldun askok behintzat.

---

\* *Sud-Ouest*, 2.2.74.

Baina hemen argi ikusten den zerbait ba da: Bai ezkertarrak, bai eskuindarrak, instituzio bezala itz egiten dutenean, instituzioak zentralistak diranez, *zentroa* dute lege; ez dute askatasuna, ez egia, ez legea, ikusten, *zentroaren* lege, egi eta askatasuna baizik; eta noizpait erakundearen izenean Euskalerrriaren alde arpegia ematen badu norbaitek, euskalduna delako edo ala sentitzen duelako da, S. Narbaitz-i gertatzen zaion bezala. Eta nere errotarako dakarren ur berri honek hontaz zerbait adierazten du: Etienne Salaberry-k *Herria-n*\*\* dion bezala: *Enbata* Paris-en egin eta *Rouge* edo *Minute* edo *Le Canard Enchaîné* Baionan agertuko balira *Enbata* izenarekin, bestalde, debekatuak izango lirake. Askatasuna, Paris-en fabrikatzen den jacobino merkantzia bat, sal-gai bat, da. Hau askatasuna ote da?"

Instituzio bezala eskuin eta ezker bezala agertzen direnen komentario hoietaz izan da besterik, noski:

1) Robert Lafont irakasle eta idazleak\*\*\* Sanguinetti-ri erantzuten diona laburki hau da: Sanguinetti-ren teoloji inkisitorialak bestela badiote ere, hixtorian zehar egin diren injustiziak nolabait zuzendu behar dira, eta Poloniarekin egin zuten zatiketa gaitzestea eta Euzkadi eta Catalunya-rekin egin zutena onartzea ez da ez bizkor eta ezta zuzena ere. Nondik norainoko demokrazia du Sanguinettik buruan?

2) Pierre Lafitte-k, finki, beti ohi duen bezala, *Le Monde*\*\*\*\* argitaratu duen lanean ("La culture basque entre le passé et l'avenir") diona bukatzeko honelako esaten du: "Garai batean Espainiak utzi zituen Holanda, Italia eta Ameriketara zituen ainbat koloni ere; horaintsu, Frantziak oparotsu askatu ditu, eta De Gaullen aginduz, eunka mila kilometro dituzten lurak. Bi erri aundi hoiek gaur erri txiki bati askatasuna ematez ez du inork izutu behar; naiz eta honetarako autonomi-bide batzugin asi".

3) Eta, bukatzeko, ain ezaguna dugun Jean Haritschelhar-en ahoz haxe esaten du *Herria-k*:\*\*\*\*\* "Europa berri batek ez dio etnia eta kulturei kalterik ekarriko, lagundu baino. Errietako Europak gizonaren ikuspegia zabaldu egiten du, eta bidez sustraitu. Edozer, edonun eta edonoiz itz-jario dabilen Alexandre Sanguinetti horain "etnien" aurka itzegiten asi da ankerki, eta nazioaren batasun-ausle bezala salatzen ditu. Laixter ez dugu Europarra izaterik ere izango. Datorren hixtoriak dakarren indar berria ikusten ez duen 'imbécile' honek, biarko mundura ohitzeko kapaz ez den honek, ez ahal du 'Vive le Québec Libre!'-ren ohiua entzuten!?"

*Andoni Larreta* [Martin Ugalde]

---

\*\* Otsailaren 7koa.

\*\*\* Unibersitateko irakaslea, eta *La révolution régionaliste, Sur la France, Décoloniser en France, Renaissance du Sud* (Gallimard) eta *Lettre ouverte aux Français, d'un Occitain*-en egilea.

\*\*\*\* Otsailak 1.

\*\*\*\*\* Otsaila 7.